



## OINARRIZKO EKINTZAK

Gure enpresaren ekintza nagusia, produktuak egitea da, horretaz aparte, zerbitzu mota desberdinak ere ematen ditugu; enpresa honetan produktu desberdinak aurkitu ditzakezu, adibidez hilkutxa eta urna diseinatuak; eta zerbitzuak aldiz, belatokiak eta hiletak antolatzen ditugu. Enpresan azpi kontratu daitezkeen ekintzak daude, adibidez, zehazki loreak erostea beste enpresari gero guk erabiltzeko. Orain gure enpresaren produkzio prozesua nola den explikatuko dugu. Lehendabizi, bezeroa gure enpresara aurkezten denean berarekin elkartuko gara, galdetuz dakien zer nahi edo bilatzen duen; ez badago ziur oraindik, guk gure produktu eta zerbitzu desberdinak erakutsiko dizkiogu, ideia bat egiten joateko.

Bezeroa ziur badago zer nahi duen, diseinatzen hasi daiteke berak aukeratutako produktua. Behin hori egin eta gero, guk azpi-enpresa batera bidaliko dugu diseinua, azpi-enpresa hori egiten hasteko. Produktua egin eta gero, gure enpresara ekartzen dutenean produktua, bezeroarekin elkartuko gara berriro erakusteko nola gelditu den eta berak nahi zuena zen. Gure enpresan egon daitezkeen arazoak hauek izan daitezke, bezero gutxi izatea, hilkutxen diseinuak egiteko orduan diseinuak gaizki ateratzea, enpresan dauden langileak lana ez egitea edo lan orduetan faltatzea, komunikazio txarra egotea.

Arazo hauei aurre egiteko gauza hauek egin beharko dira, enpresan lana egiten ez dutenei edo lan orduetan asko faltatzen direnak kaleratu beharko ditugu eta beste langile batzuk kontratatu beharko ditugu; diseinuak gaizki ez ateratzeko lehenago konprobatu egin behar da diseinuak ondo ateratzen diren ala ez. Gaizki ateratzen badira saiatu behar dugu arazoa konpontzen berriro diseinuak gaizki ez ateratzeko.

Bezero gutxi ez izateko hoberena izango da iragarkiak egitea horrela bezero gehiago lortzeko.

Komunikazio txarrak ez izateko hoberena izango da bakoitzak egingo duena banatzea.

